

ERABAKIA, .....(e)koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluarena, **UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko arautegia** onartzen duena.

2022ko maiatzaren 18an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko araudia. Kontuan izanik igarotako denbora, eta ikusirik sindikatuek, hautagaiak, sailek eta zerrendak kudeatzen dituzten langileek berek Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzari helarazi dizkioten hobetzeko proposamenak, oso komenigarritzat jo da egokitzea gestio prozedura batzuk eta arautegia bera sailen egungo egoerara eta UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrenda osatzeko hautagaien egungo profilerara.

Arautegi hau egitean, kontuan izan da genero ikuspegia, berdintasun arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, zuzeneko edo zeharkako diskriminazio ondorioak prebenitzeko, eta berdintasuna bermatzeko, bai kontratazioan bai haren baldintzetan.

Horrenbestez, Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak proposatuta, Gobernu Kontseiluak honako hau

**ERABAKI DU:**

Onartzea, Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboaren irizpena jaso ondoren, UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko arautegia.

Leioa, XXXX

Errektorea

Jose Ramon Bengoetxea Caballero

Idazkari nagusia

Leire Garmendia Arrieta

## ERANSKINA

### UPV/EHUko IRAKASLEEN ORDEZKOEN ZERRENDAK OSATZEKO ETA GESTIONATZEKO ARAUTEGIA

2022ko maiatzaren 18an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko arautegia. Kontuan izanik igarotako denbora, eta ikusirik sindikatuak, hautagaiak, sailek eta zerrendak kudeatzen dituzten langileek berek Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzari helarazi dizkioten hobetzeko proposamenak, oso komenigarritzat jo da egokitzea kudeaketa prozedura batzuk eta arautegia bera sailen egungo egoerara eta UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrenda osatzeko hautagaien egungo profilerara.

Arautegi hau egitean, kontuan izan da genero ikuspegia, berdintasun arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, zuzeneko edo zeharkako diskriminazio ondorioak prebenitzeko, eta berdintasuna bermatzeko, bai kontratazioan bai haren baldintzetan.

#### 1. artikulua.- Aplikazio eremua

1.1. Arautegi honek ezartzen ditu UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko irizpideak.

1.2. Ordezkoen zerrenden helburua da ordezko irakasleak kontratatzea, sailak gaitasunik ez duenean bere gain hartzeko aldi baterako irakaslan, dagokion arloan, honako egoera hauetakoren bat sortzen denean:

a) Irakasle lanpostuak betetzea, postua gordetzeko eskubidea duten absentzietan (gaixotasun, amatasun eta aitatasunagatiko bajak edo lizentziak, zerbitzu betekizunak, zerbitzu bereziak, lizentzia sabatikoak, eszedentziak, lanaldi murrizketak, liberazio sindikala, etab.) edo irakats betebeharrak murriztea edo horietatik salbuestea dakarten kargu akademikoak betetzeko izendapenetan, edozein izanik ere unibertsitatearekiko lotura.

b) Gerora hutsik geratutako irakasle lanpostuak betetzea, postua hutsik gelditu den ikasturtea amaitu arte (une horretan, postua eraldatu edo lehiaketa deialdian sartuko da).

c) Ezohiko kasuetan, Irakasle-ikertzaileen Plan Gidariaren akordioan baitan beti, aldi baterako betetzea irakasle funtzionarioen edo lan kontratudunen plaza hutsak, sortu berriak eta aurrekontuz hornituak, behin betiko bete arte, arautegian ezarritako moduan. Kasu honetan, kontratuaren iraupenari dagokionez, bete egingo da 20/2021

Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriena.

1.3. Behar hauei erantzuteko, zerrenda bat osatuko da sail eta jakintza espezialitate bakoitzeko.

1.4. Dagokion sailak behar bezala justifikatutako kasuetan, profil zehatzeko beste zerrenda batzuk osatu ahal izango dira, jakintza espezialitatearena baino zehaztasun maila handiagoarekin. Errektoreari dagokio erabakitzea profil zehatzeko zerrenda horien komenigarritasunaren inguruan.

## **2. artikulua.- Zerrendetan sartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak**

2.1. Zerrendetan sartzeko baldintza orokorrak dira:

a) Nazionalitatea. Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estatu kideren batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa den beste estatu batekoa. Parte hartu ahal izango dute ere ezkontideek, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta bien ondorengoek ere, 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak izanik haien kontura bizi direnak.

Eskaera aurkezteko unean, nazionalitatea akreditatu beharko da, bai eta, hala badagokio, ahaidetasuna eta mendetasuna ere, aintzat harturik maiatzaren 18ko 543/2001 Errege Dekretuaren 8.2 artikulua (langileen zirkulazio askerako eskubidea duten beste estatu batzuetako nazionalak Estatuako Administrazio Orokorraren eta haren organismo publikoen enplegu publikora sartzeari buruzkoa).

b) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea.

c) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

d) Kaleratua edo zerbitzutik berezia izan ez izana, ezein administrazio publikoren edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioren diziplina espediente bidez, eta ez egotea inhabilitazio absolutu edo bereziko egoeran, ebazpen judicial bidez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko, aurretik zegoen lanbide kategoria bera lortu nahi denean. Beste estatu batzuetako nazionalitatea duten pertsonen kasuan, ez egotea estatu horietan enplegu publikoa lortzea eragozten duen inhabilitazio egoeran edo antzekoan, edo ez edukitzea estatu horietan enplegu publikoa lortzea eragozten duen diziplina zigor edo antzekorik.

2.2. Titulu akademikoari buruzko baldintzak

2.2.1. Nahitaezkoa izango da Doktorego, Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza, Gradu titulua edo lan poltsan sartzeko aukera ematen duen titulu baliokidea izatea. Zerrendak irekitzeko eskaerarekin batera, sailek proposatuko dute zerrendan egoteko aukera ematen duten tituluen zerrenda. Sailak hasieran proposatutako zerrendan ez dauden tituluen kasuan, errekurtsioa aurkeztuz gero, txostena eskatuko zaio sailari, ez onartzeari buruz erabakitzeko.

2.2.2. Gainera, lehen xedapen iragankorraren arabera, zerrendetan sartu ahal izango da, aldi baterako, Unibertsitateko Diplomatura, Arkitektura Tekniko, Ingeniaritza Tekniko edo titulu baliokidearekin, jakintza espezialitate hauetan: 0187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 0189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 0193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 0255 Erizaintza; 413 Fisioterapia; 0813 Gizarte Langintza eta Zerbitzuak.

### 2.3. Lan poltsaren baldintza espezifikoak

2.3.1. Behar bezala justifikatutako kasuetan, sailek eskatuta, baldintza espezifikoak ezarri ahal izango dira; hala nola esperientzia, hizkuntzak (2.3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera), ziurtagiriak, arlo zehaztutako titulu akademikoak edo irakaslan egin beharreko lanpostuen zerrendako postuetan ezarritako beste batzuk. Deialdian zehaztu beharko da baldintza espezifikoak zertan datzan, eta zer dokumentu eta nola aurkeztu behar den.

2.3.2. Hizkuntza ez-ofizial batean irakastea xede duen filologiaren arloko lan poltsa batean sartzeko, hizkuntza horren C1 maila akreditatu beharko da, aintzat harturik UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2010eko ekainaren 24ko Erabakia, zeinaren bidez onartu baitzen hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko akreditazioa lortzeari buruzko araudia (2010eko abenduaren 2ko EHAA), Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabaki bidez eguneratua.

2.3.3. Osasun Zientzietako zerrendetan, baldintza espezifikoak izan daitezke esperientzia kliniko frogagarria edo espezialitate mediko jakin bat.

2.3.4. Eskatu duen saila arduratuko da baldintza espezifikoak betetzen dela egiaztatzeaz, eta, baldintza ez betetzeagatik baztertzearen aurkako berraztertze errekurtsioa jartzen bada, txostena eskatuko zaio dagokion sailari, ez onartzeari buruz erabakitzeko.

2.4. Ordezkapenen zerrendetan sartu nahi duten hautagaiek bete egin beharko dituzte eskaerak aurkezteko epean eskatutako baldintzak, eta lan poltsetan egon bitartean mantendu.

2.5. Hala ere, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren euskara edo ofizialak ez diren hizkuntzak dakizkitela egiaztatzen duten hautagaiei dagokienez, baldintza hori betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkezten badituzte Deialdien eta Lehiaketen Atalean, une horretatik bertatik aurrera eskaini ahal izango zaizkie hizkuntza eskakizun elebiduna edo

hizkuntza ez-ofizialen eskakizuna duten ordezkapenak. Horrek ez du inola ere aldatuko merezimenduen balorazioan emandako puntuazioa.

2.6. Deialdia egin duen administrazioak hautapen prozeduraren edozein unetan ikusten badu hautagai batek ez duela betetzen parte hartzeko eskatzen diren baldintzetako bat, bost egun emango zaizkio dagokion dokumentazioa aurkezteko. Ez badu hori egiten, behin betiko baztertuko da.

### **3. artikulua.- Eskatutako tituluaren homologazioa edo baliokidetasun aitortpena**

3.1. Eskatutako titulua atzerrian eskuratu bada, dagokion homologazioa edo baliokidetasun aitortpena eduki beharko da, eta ez da nahikoa izango hura eskatu izana egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztea.

3.2. Atzerriko doktorego tituluen baliokidetasun aitortpena UPV/EHUUn eskatu ahal izango da, horretarako ezarritako prozeduraren arabera.

3.3. Gradu, Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza, Unibertsitate Diplomatura, Arkitektura Tekniko eta Ingeniaritza Teknikoko tituluen kasuan, homologazioa egiaztatuko da Tituluen, Baliozkotzeen eta Homologazioen Zuzendariordetza Nagusiak emandako egiaztagirien bidez, eta ez da nahikoa izango homologazioa eskatu izana egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztea, indarrean dagoen araudiaren arabera (889/2022 Errege Dekretua, 2022ko urriaren 18koa, atzerriko hezkuntza sistemetak unibertsitate ikasketak homologatzeko, baliokidetzat jotzeko eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, eta aurreko ikasketa antolamenduetako unibertsitate titulu ofizialak Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan baliokideak izateko prozedura arautzen duena).

### **4. artikulua.- Hizkuntza ofizialen ezagutza egiaztatzea**

4.1. Euskararen ezagutza egiaztatuko da Euskararen arloko errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) ezarritako moduan, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko (2010eko azaroaren 15eko EHAA) C1 mailaren pareko tituluak aurkeztuta, edota apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak adierazitako moduan (euskaraz eginiko ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzko dekretua).

4.2. Gaztelania hizkuntza ofizial ez duten herrialdeetako hautagai atzerritarrek egiaztatu egin beharko dute gaztelaniaren C1 maila, hizkuntza horretan irakasteko. Edo beste edozein bide erabiliz, gaztelaniaz irakasteko gaitasuna egiaztatzeko balioz gero.

### **5. artikulua.- Hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko gaitasuna egiaztatzea**

EAEn ofiziala ez den hizkuntza batean irakasteko gaitasuna egiaztatzean, aintzat hartuko dira UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2010eko ekainaren 24ko Akordioa (hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko akreditazioa lortzeari buruzko araudia onartzen duena) (2010eko

abenduaren 2ko EHAA) eta UPV/EHUko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren eranskina (hizkuntz ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoa), Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabaki bidez eguneratua.

## **6. artikulua.– Ordezkapen zerrendak egiteko prozesuak**

6.1. Oro har, ordezkapen zerrendak osatzeko deialdiak bi urtean behin egingo dira. Deialdi horietan, epe bat ezarriko da hautagai berriek eskaerak aurkezteko eta jada izena emanda daudenen merezimenduak eguneratzeko. Ondoren, hautagaitza guztiak berrantolatuko dira.

6.2. Ordezkapen zerrendak osatzeko edo horiek zabaltzeko prozesuen deialdia argitaratuko da UPV/EHUren webgunean eta Lehiaketan Ataleko eta Campuseko Errektoreordetzetako iragarki taula telematikoetan, gutxieneko eduki honekin:

- a) Deialdian sartutako zerrendak.
- B) Zerrenda bakoitzean sartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak.
- c) Zerrenda bakoitzari aplikatu beharreko baremo espezifikoa.
- d) Ebaluazio batzordeak.
- e) Zerrenda bakoitzari dagozkion jakintza espezialitateen zerrenda.

6.3. Zerrendak irekitzeko erabakiaren aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute hautagaiak, errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua, bi hilabeteko epean, argitaratzen denetik kontatzen hasita.

6.4. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, errektoreak aginduko du argitaratzeko lehiaketan onartu eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrenda onartzen duen erabakia, baztertzeko arrazoiak azalduta, UPV/EHUren deialdian adierazitako lekuan. Baztertutako pertsonak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 10 egun baliodunetan, akats posibleak zuzentze aldera.

Behin epe hori igarota, errektoreak argitaratuko du behin betiko zerrenda, bide bera erabilita. Berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua, bi hilabeteko epean, argitaratzen denetik kontatzen hasita.

6.5. Eskaera egin duten hautagaien merezimenduak barematuko dira lan poltsari aplikatu beharreko baremoaren arabera. Zerrendak zabalduz gero, zerrendaren hasierako baremo bera erabiliko da.

6.6. Baremazioa egingo da lehiaketan onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean. Epe orokorrak ezarriko dira zerrendak hurrengo ikasturtea hasi baino lehen erabili ahal izateko moduan. Epe horretan

merrezimenduen baremazioa egin ez bada, horretarako arrazoi justifikaturik egon gabe (errektoreari dagokio hori ebaztea), baremazioa egiteko neurriak hartuko ditu errektoreak.

6.7. Ebaluazio batzordeek eginiko merrezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitza argitaratuko da deialdian adierazitako lekuan. 5 eguneko epea emango da, akats posibleak zuzentzea eskatzeko. Ebaluazio batzordeak eskaerak aztertuko ditu; ondoren, merrezimenduen balorazioaren behin betiko emaitza argitaratuko da, leku berean, 15 eguneko epean.

6.8. Merrezimenduen behin betiko balorazioaren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da, errektorearen aurrean, hilabeteko epean, kontatzen hasita argitalpenaren biharamunetik, alde batera utzi gabe egokitzat jo daitezkeen beste edozein errekurtsu aurkeztea. Errekurtsoak argitaratuko dira deialdian adierazitako lekuan.

## **7. artikulua.- Lan poltsetan sartzeko eskaerak**

7.1. Zerrendak irekitzeko zein zabaltzeko prozeduretan, hautagaiek telematikoki aurkeztuko dute aurkezten diren zerrenda bakoitzeko eskaera bat, honako hauek adierazita:

- a) Datu pertsonalak, helbidea, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.
- b) Zein campusetako eskaintzak jaso nahi diren.
- c) Ordezkapena lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa nahi den, campusen arabera.
- d) Hizkuntza eskakizuna(k).
- e) Merrezimenduen laburpenen dokumentua, kontuan harturik atal bakoitzeko gehienez aurkez daitezkeen merrezimenduak.

7.2. Eskaerarekin batera aurkeztuko dira baldintzak betetzearen eta alegatutako merrezimenduen egiaztagiriak.

## **8. artikulua.- Ebaluazio batzordeak**

8.1. Ebaluazio batzordeak argitaratuko dira deialdiarekin batera. Jardunean dauden UPV/EHUko irakasle-ikertzaile iraunkorrek eratu dituzte, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dute, arrazoi sendo eta objektiboengatik ezinezkoa denean izan ezik.

8.2. Ebaluazio batzordeko kideek dagokion jakintza espezialitatekoak izan beharko dute. Jakintza espezialitatean baldintzak betetzen dituen irakasle nahikorik ez badago, Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak izendatu ahal izango ditu batzordea osatzeko behar diren kideak, antzeko jakintza espezialitate bateko irakasleak erabilita.

8.3. Ebaluazio batzordea eratzeko, Saileko Kontseiluak izendatuko ditu batzordeburu bat, idazkari bat eta kide bat, bai eta haien ordezkoak ere. Hirurek izango dute hitza eta botoa.

Irakasle iraunkorren lanpostuak betetzen ez dituzten kontseilukideek ez dute parte hartuko ebaluazio batzordeetako kideak hautatuko diren Saileko Kontseiluaren bileretan.

8.4. Errektoreak izendatu ahal izango du Unibertsitateko Irakasleen Batzordeko kide bat, behatzaile gisa aritzeko batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.

8.5. 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) 23. eta 24. artikuluetan abstentzio arrazoiei buruz jasotako egoeraren batean dauden kideek horren berri emango diote errektoreari. Dagokion organoak egoera hori abstentzio arrazoitzat jotzen badu, ordezkoei ordezkatzeko dituzte pertsona horiek. Aurreko kasuan edo errektoreak onartutako errekusazio kasuan izan ezik, batzordekideek ezin izango diote bere betekizunak betetzeari uko egin.

8.6. Erabakiak hartzeko, ezinbestekoa izango da ebaluazio batzordeko hiru kideak bertan egotea.

8.7. Batzordearen gehiengoaren erabakiarekin bat ez datozen kideek espresuki adierazi beharko dute hori, eta idatzizko boto partikularra eman ahal izango dute, 48 orduko epean (erabakiari erantsiko zaio).

## **9. artikulua.– Lan poltsaren ezaugarriak eta sartzeko baldintzak**

9.1. Lan poltsak honela antolatuko dira:

- a) Hautagai bakoitzari puntuazio bat emango zaio, eskaera egin duen poltsa bakoitzari aplikatu beharreko baremo espezifikoaren bidez lorturikoa.
- b) Lan poltsaren barruan, hautagaiak ordenatuko dira puntuazio handienetik txikienera.

9.2. Zerrendan jasoko dira hautagai bakoitzak eginiko aukerak:

9.2.1. Lanaldi osoko edo partzialeko ordezkapenak. Arduraldi hauen artean aukeratu beharko da, campus bakoitzerako:

- a) Soilik lanaldi osoan.
- b) Soilik lanaldi partzian.
- c) Lanaldi osoan zein partzian.

9.2.2. Hizkuntza eskakizunak. Bat edo gehiago aukeratu ahal izango dira:

- a) Hizkuntza eskakizun elebiduna (euskara/gaztelania).
- b) Hizkuntza eskakizun ez-elebiduna (gaztelania).
- c) Ingelesa barne hartzen duen hizkuntza eskakizuna.
- c) Frantsesa barne hartzen duen hizkuntza eskakizuna.

9.2.3. Hautagaiak hizkuntza bat dakiela egiaztatzen badu lehiaketan parte hartzeko eskaera aurkeztu ondoren, hizkuntza horren eskakizuna duten ordezkapenak egin ahal izango ditu ere, une horretatik aurrera, zerrendaren ordena aldatu gabe.

9.3. Lan poltsan eskatzen den titulua Unibertsitate Diplomatura, Arkitektura Teknikoa, Ingeniaritza Teknikoa, Gradua edo baliokidea bada, eta master edo doktoregoko irakaskuntza emateko lan kontratua eskaini behar bada, soil-soilik parte hartu ahal izango dute eskatutako titulua eman beharreko irakaskuntza mailan duten hautagaiek.

## **10. artikulua.- Lan poltsak agortzea**

10.1. Sail batean sortzen denean 1.2. artikuluan aurreikusitako behar bat, eta hautagairik ez badu dagokion jakintza espezialitateko lan poltsan:

- a) erabaki ahal izango du txikitzea lan poltsan onartua izateko hasieran ezarritako gutxieneko puntuazioa.
- b) jo ahal izango du antzeko jakintza espezialitate bateko lan poltsa batera.
- c) aldi baterako berrantolatu ahal izango du irakats esleipena, beste hizkuntza eskakizun bat duten deialdiak egin ahal izateko, ikasturte horretarako bakarrik.
- d) jo ahal izango du beste erakunde publiko batzuen antzeko lan poltsetara.

10.2. Salbuespen gisa, ordezkapen poltsak handitzeko deialdiak eskatu ahal izango dira sail batean 1.2. artikuluan aipatutako behar bat sortzen denean eta dagokion jakintza espezialitateko lan poltsan hautagairik ez duenean. Kasu horretan, hautagai berrien merezimenduak baloratuko dira, eta lan poltsa osatzen dutenen balorazioa eguneratuko da. Ondorioz, zerrenda berrantolatuko da, 6.1. artikuluan adierazi bezala.

## **11. artikulua.- Lan poltsetako pertsonen datuak eguneratzea**

11.1. Lan poltsetan dauden irakasleek noiznahi eguneratu ahal izango dituzte beren datu akademikoak, irakaskuntza euskaraz emateko eta hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko akreditazioari dagokionez.

11.2. Hautagaiek noiznahi aldatu ahal izango dituzte campusari, arduraldiari eta hizkuntza eskakizunari buruzko aukerak. Aldaketa horiek indarrean sartuko dira aurkeztu eta bost egunera.

## **12. artikulua.- Ordezkapen poltsen funtzionamendu orokorra**

12.1. Saileko zuzendariak egingo du kontratazio eskaera, dagokion eredia beteta eta Saileko Kontseiluari eskaeraren berri emanda.

12.2. Ordezkapena profil espezifikoko batekin bete behar denean izan ezik, jakintza espezialitatearen eta sailaren zerrenda erabiliko da. Zerrenda horretan hautagairik ez badago, zerrenda hauetara joko da, hurrenez hurren:

- a) Jakintza espezialitatearen eta sailaren zerrenda, edo profil zehatzaren zerrenda, zehaztasun maila handiagoarekin.
- b) Antzeko jakintza espezialitate bateko zerrenda bat.
- c) Araudian jasotako beste administrazio publiko batzuen zerrendak, UPV/EHUko lan poltsetan daudenek ordezkapen eskaintza onartzen ez dutenean.

12.3. Oro har, eskaintza bidaliko zaie ordezkapena betetzeko baldintzak bete eta postua betetzeko moduan dauden hautagaiei, edo, lanaldi osoko ordezkapena denean, betetzeko moduan daudenei edo lanaldi partzialeko zereginetan daudenei.

12.4. Eskaintzaren baldintzak bete eta postua betetzeko moduan dauden pertsoneri, bitarteko telematikoen bidez egingo zaie dei (SMS eta posta elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa edo baliabide teknologikoen une bakoitzean ahalbidetzen dituztenak), eta erantzunak bide beretik jasoko dira, bide eraginkorragoak ere erabili ahal izango diren arren, gardentasuna bermatuta beti.

12.5. Eskaintzak jasoko du ordezkapenari buruzko informazio garrantzitsuena: ordezkapen mota (aldi baterako ezintasunagatik, karguagatik edo lanpostu hutsagatik), hizkuntza eskakizuna, arduraldia, ikastegia, irakaskuntza mota, gaiak, baldintza espezifikoak, ordutegia, aurreikusitako iraupena, saileko zuzendaritzaren harremanetarako datuak, eta interesgarritzat jotzen den gainerako informazio gehigarria (II. eranskina bidaliko da horretarako).

Interesdunek informazio osagarria aurkituko dute Irakasle-ikertzaileen Zerbitzuaren Deialdien eta Lehiaketan Atalean.

12.6. Lan poltsan dauden pertsonen, jakinarazten zaienetik aurrera, bi egun baliodun izango dituzte lan poltsa onartu edo baztertzeko. Ezohiko egoeretan (Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzaren arabera halakoak direnak, aipatutako bi egunetan akreditatu beharrekoak), epe hori luzatu ahal izango da.

12.7. Ordezkapena esleituko zaio lan poltsako lehen pertsonari, lehentasun ordenaren arabera. Behin esleituta, akats bat egin dela ikusten bada, ofizioz zuzenduko da, ondorioz gabe utzita dei akastuna.

12.8. Ordezkapena esleituko zaien pertsonen 2 egun baliodun izango dituzte, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, kontratua formalizatzeko. Epe horretan kontratua formalizatzerantz aurkezten ez badira, uko egiten diotela ulertuko da, eta hurrengo pertsonari deituko zaio, hurrenkeraren arabera.

12.9. Salbuespenezko egoeretan, bereziki familia eta lana bateragarri egitearekin loturikoetan (Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzak egiaztatutako beharrekoak), luzatu ahal izango da aurreko atalean aipatutako epea.

12.10. Eskainitako kontratua urtebetetik gorakoa denean, aukera emango zaio amatasun, aitasun edo kontziliazio arrazoi bategatik baimena duen pertsonari kontratua formalizatzeko baimena amaitu ondoren lanean hasteko datarekin, eta zerrendako hurrengo hautagaiari eskainiko zaio ordezkapena, hasieratik lanean has dadin, lehenengo hautagaia sartu arte.

12.11. Sailek erraztasunak emango dizkiote ordezkoari, irakaslanean has dadin, lana modu egokian egiteko behar diren bitartekoak jarritz.

### **13. artikulua.- Salbuespenak funtzionamendu orokorrean**

13.1. Hautagai bat lanaldi osoko zerbitzuan ari denean, beste zeregin bat lanaldi osoan betetzeko beharra sortzen bada (helburu izango duena lanpostu bat behin betiko bete arte aldi baterako betetzea, ordezkapen bat egitea, liberazio sindikal, zerbitzu berezi, zerbitzu betekizun edo kargu akademiko bategatik, irakaskuntzatik erabat salbuetsita, urtebetetik gorako iraupenarekin), pertsona horri berari eskainiko zaio, nahiz eta beste zeregin batean egon. Irizpide honetatik kanpo utziko dira urtebetetik beherako ordezkapenak, aipatutako arrazoiek bultzatutako ordezkapenak izan arren. Nolanahi ere, behar diren neurriak hartuko dira, dagozkion sailekin koordinatuta, eragozpen ahalik eta txikiena eragiteko hautagaiari agindutako irakaslanari, eta lehendik esleituta duen irakaslanari mantentzeko aukera ere aurreikusi ahal izango da.

13.2. Sail berean lanaldi partzialeko ordezkapen kontraturen bat badago eta plantillako lanpostuetan dauden pertsonak lanaldi partzian ordezkatzeko behar berriak sortzen badira, ez da lanaldi partzialeko beste kontraturik egingo, lanaldi osoko ordezkapen kontratu bat baizik. Kasu hauetan, errespetatu egingo da beti ordezkapen poltsetan pertsonak duten ordena.

13.3. Lanaldi partzialeko zerbitzuetan dagoen eta puntuazio handiena duen ordezkoari, kontratua aldatzeko aukera eskainiko dio unibertsitateak, lanaldi partzialeko kontratu bat, arduraldi handiagokoa, sailean lanaldi partzialeko beste premia bat sortzen denean, jakintza espezialitate, hizkuntza eskakizun eta ikastegi berekoa, lan poltsetako lehentasun ordena bermatuta beti.

13.4. Jakintza espezialitate, hizkuntza eskakizun eta ikastegi berean arduraldi partzialeko bi ordezkapen behar sortzen badira, urtebetetik gorakoak, lanaldi osoko ordezkapen bat eskainiko da zuzenean, zerrendaren hasieratik.

13.5. Ordezkapen bat amaituta, 10 egun natural igaro baino lehen, berriro ordezkatu behar bada ordezkaturako pertsona bera, ordezkapena eskainiko zaio aurretik ordezkapena egin duen pertsonari.

13.6. Ordezko bat lanaldi osoko pertsona bat ordezkatzen ari denean, lanpostuaren titularra lanaldi murrizketarekin itzultzen bada, ordezkoak ordezkapena egiten jarraitu ahal izango du, lanaldi murriztuaz. Era berean, pertsona bat lanaldi murriztuko ordezkapen bat egiten ari denean, ordezkapena lanaldi osora igarotzen bada 13.1. atalean aipatutakoa ez den beste arrazoi bategatik, lanaldi partzialean ari zenak jarraituko du egiten ordezkapena, hala nahi izanez gero, lanaldi osorako puntuazio handiagoa duten hautagaiak egon ala ez.

13.7. Pertsona bat lanpostua gordeta duen beste bat ordezten ari bada eta lanpostu hori hutsik geratzen bada, ordezkoaren kontratua aldatuko da, ikasturtea amaitu arte irakasten jarrai dezan.

#### **14. artikulua.- Lan poltsatik kanpo uztea**

14.1. Lan poltsa guztietan, hautagai bat behin-behinean kanpo uzteko arrazoiak izango dira:

- a) Diziplina espediente bat izapidetzea. Horrek eragingo du hautagaia izena emanda dagoen lan poltsa guztietatik kanpo gelditzea, behin-behinean, izapidetzeak iraun bitartean, gehienez ere sei hilabetez.
- b) Genero indarkerien aurkako protokoloa aplikatzea, behin-behineko bazterketa dakarten kautelazko neurriak hartuta.

14.2. Behin betiko kanpo uzteko arrazoiak izango dira:

- a) Hautagaiari aukeratu dituen ezaugarrietako (modalitatea, lurraldea, etab.) ordezkapena esleitu zaionean, hitzartutako epean ez agertzea eta horretarako arrazoi justifikaturik ez aurkeztea.
- b) Hautagaia irakaslanerako egokia ez dela erabakitzea.

14.3. Lan poltsa guztietatik behin betiko kanpo uzteko arrazoiak izango da hori erabakitzea diziplina espediente baten bidez, falta larri edo oso larriagatik. Erabaki hori lan poltsa batera edo batzuetara mugatu ahal izango da.

#### **15. artikulua.- Ordezko irakaslea irakaslanerako egokia den zehazteko protokoloa**

15.1. Eskaintza bat jasota, hautagaiak uste badu ez dela gai irakaslana modu egokian egiteko, uko egin ahal izango dio eskaintzen zaion kontratuari.

15.2. Behin irakaslanean hasita, sailak uste badu ordezkoa ez dela irakaslanerako egokia, urrats hauek egingo dira:

- a) Saileko Zuzendaritzak Errektoreordetzari eskatuko dio egiaztatzeko ordezkoaren gaitasun espezifikoa. Eskaerari erantsiko dizkio txosten xehatua eta justifikazio agiriak.
- b) Errektoreordetzak txostena eskatuko dio dagokion ikastegiari.
- c) Interesdunari entzungo zaio, eta ordezkaritza sindikalak alegazioak egin ahal izango ditu.

d) Errektoreak, kontuan izanik sailaren eta ikastegiaren txostenak eta interesdunaren eta ordezkariak sindikalaren alegazioak, dagokion erabakia hartuko du, ahalik eta lasterren, ordezkaria postutik kentzearen inguruan.

15.3. Ikasleek kezarik badute ordezkariaren gaitasunari buruz, ikastegiko Ikasleen Kontseilura joko dute. Kontseiluak kezarik heldaraziko dizkio dagokion sailari, eta Saileko Kontseiluak erabakiko du kezarik oinarrikerik baduten eta aurreko atalean azaldutako prozedurari jarraitu behar zaion, edo, aitzitik, oinarrikerik ez duten eta artxibatu egin behar diren. Kasu horretan, Ikasleen Kontseiluarekin jarriko da harremanetan, erabaki hori hartzeko arrazoiak azaltzeko.

15.4. Errektoreak erabakitzen badu hautagaia postutik kentzea, ez zaio berriro deituko ezaugarri bereko kontratuetan ordezkariak egiteko.

## **16. artikulua.- Ordezkariak sindikalarentzako informazioa**

16.1. Deialdiaren eta Lehiaketaren Atalak informazio hau emango die atal sindikalei:

- a) Lan poltsak irekitzeko eta zabaltzeko deialdiak.
- b) Lan poltsa bakoitzaren merezimenduen baremo espezifikoak.
- c) Lan poltsa bakoitzeko hautagaien ordena eguneratua.

16.2. Irakasle-ikertzaile lan kontratadunen atal sindikalek eskura izango dituzte beti lan poltsak erabiliz egin diren kontratazioak, eta lan poltsetan onartu ez diren edo lan poltsetatik baztertu diren pertsonen berri ere izango dute.

### **Xedapen Gehigarri Bakarra. Pertsonal klinikoa**

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaskuntza unitateetan, irakaskuntzak espezifikoki behar duenean asistentzia zerbitzuak ematea ospitale jakin batean eta espezialitate jakin batean, ordezkariak eskainiko zaizkie dagokion jakintza espezialitateko zerrendako kide guztiei, zein ikastegitan irakatsi behar den adierazita. Soil-soilik onartu ahal izango dute eskaintza baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonak, irakastokia izango den ikastegia barne. Pertsonal klinikoa poltsak baloratzeko, irakasle elkartuen lanpostuetarako deialdietan erabilitako baremo orokorra erabiliko da, arautegi honen III. eranskineko baremoaren ordezkariak.

### **Lehenengo Xedapen Iragankorra. Jakintza arloaren araubide iragankorra**

Uztailaren 18ko 678/2023 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra aplikatuz, jakintza espezialitatearen zerrenda indarrean sartu arte, plaza esleituko zaizkie jakintza arloei.

### **Bigarren Xedapen Iragankorra. Gaien arabeko kideatasunen araubide iragankorra**

678/2023 Errege Dekretuak aipatutako jakintza espezialitatearen zerrenda indarrean jarri eta urtebeteko epean, unibertsitateak bere kideatasunen katalogoa prestatuko du.

UPV/EHUren kidetasunen katalogoa landu bitartean, kidetasun horiek zehaztuko dira sailek eginiko baremo espezifikoan.

### **Xedapen Indargabetzaile Bakarra. Indargabetzea**

Indargabetu egin da UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 31ko Erabaki bidez onartutako UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrenda osatzeko eta gestionatzeko arautegia (2022/05/18ko EHAA), bai eta arautegiarekin kontraesanean dagoen maila bereko edo txikiagoko edozein xedapen ere.

### **Azken Xedapen Bakarra. Indarrean jartzea**

Arautegi honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

PARTICIPACIÓN PÚBLICA

## I. ERANSKINA

### SAILAK ESKATUTAKO ORDEZKAPEN ESKAERA (EGUNERA DAITEKEENA)

Ordezkatu nahi den postuaren kodea (adibidez: AUP6/1-D00001-1):

Baja hartuko duen irakaslea:

Arrazoa:

Bajaren data (gertatutakoa edo aurreikusitakoa):

Aurreikusitako iraupena:

Saila eta lan poltsa:

Ikastegia:

Jakintza espezialitatea:

Hizkuntza eskakizuna: gaztelania / gaztelania-euskara / gaztelania-euskara-ingelesa

Baldintza espezifikokoak (halakorik badago):

Arduraldia: osoa / partziala: x ordu/aste

Irakaslanaren ezaugarri nagusiak:

Masterra / gradua:

Irakasgaiak eta irakats bektoreak:

Eskolen ordutegia lauhileko bakoitzean:

Sailarekin harremanetan jartzeko datuak:

Zuzendaria: email: tel.:

Saileko Zuzendaritzaren azalpen testua hautagaiarentzat (kontuan harturik DBLO):

[]

Beste ohar batzuk:

## II. ERANSKINA

### HAUTAGAIEI BIDALI BEHARREKO INFORMAZIOA (EGUNERA DAITEKEENA)

Saila eta lan poltsa:

Ordezkapen mota: aldi baterako ezgaitasuna / kargua - eszedentzia / postu hutsa

Hizkuntza eskakizuna: gaztelania / gaztelania-euskara / gaztelania-euskara-ingelesa

Baldintza espezifikoak (halakorik badago):

Arduraldia: osoa / partziala: x ordu/aste

Ikastegia:

Irakaslanaren ezaugarri nagusiak:

Masterra / gradua:

Irakasgaiak eta irakats bektoreak:

Eskolen ordutegia lauhileko bakoitzean:

Ordezkapena hasteko data:

Aurreikusitako iraupena:

(postu hutsetan, ordezkapenak gehienez iraungo du ikasturtearen abuztuaren 31ra arte)

Sailarekin harremanetan jartzeko datuak:

Zuzendaria: email: tel.:

Saileko Zuzendaritzaren azalpen testua (kontuan harturik DBLO):

Beste ohar batzuk:

### III. ERANSKINA

#### BALORAZIORAKO BAREMO OROKORRA

##### III.1. eranskina - Baremo espezifikoa zehaztea

1.1.- Eranskin honek baremo orokorra ezartzen du, eta Saileko Kontseiluek zehaztu beharko dute zerrenda bakoitzarentzat, dagokion baremo espezifikoa onartuta. Horretarako, Saileko Kontseiluek zehaztuko dute **merezimendu bakoitzari ezarritako puntuazioa**, erreferentziatzat harturik eranskin honen 2. atalean aipatutako irizpide orokorra.

1.2.- **Saileko Kontseiluek onartutako baremo espezifikoak** aplikatuko zaizkie **ordezkapen zerrenden deialdiei** eta haien balizko zabaltzeei, aldatu arte edo beste batzuekin ordezkatu arte.

1.3.- Gutxieneko nota: irizpide espezifikoak finkatzean, Saileko Kontseiluek ezarri ahal izango dute ordezkapen zerrendan sartzeko gutxieneko nota. Gutxieneko nota hori jasoko da deialdiarekin batera argitaratuko den baremoan, eta ez da izango 30 puntutik gorakoa.

1.4.- Baremo espezifikoa zehaztea.

Lan poltsa bakoitzaren baremo espezifikoak zehatz-mehatz jasoko du merezimendu bakoitzari emango zaion puntuazioa, azpiatal bakoitzean baloratuko dena eta dagokion puntuazioa zehaztuta. Gainera, kontuan hartuko diren kasuistikak jasoko ditu, hautagaiek beren puntuazioa kalkulatu dezaten.

1.5.- Haztapenak gaiaren kidesunagatik. Saileko Kontseiluak haztapenak finkatu ahal izango ditu kidesun irizpideen arabera. Ondorioz, merezimendu bakoitzari emandako puntuazioa haztatu ahal izango da, koefiziente hauen bidez:

- 1 haztapan faktorea, arlo espezifikorako.
- 0,8 haztapan faktorea, lehen mailako kidesun arlorako.
- 0,5 haztapan faktorea, bigarren mailako kidesun arlorako.
- 0,1 haztapan faktorea, hirugarren mailako kidesun arlorako.

Ezin izango da finkatu bigarren eta hirugarren mailako kidesunetik, hurrenez hurren, lehen mailako eta lehen eta bigarren mailako kidesunetik finkatu gabe.

Aurrekoa gorabehera, Saileko Kontseiluak erabaki ahal izango du 0 puntu ematea poltsaren ezaugarriekin inolako zerikusirik ez duten merezimenduei.

Nolanahi ere, koefiziente horiek aplikatzeko prozedura esplizituki azalduko da merezimenduen baremoa zehazteko unean.

Prozedura horrek espresuki jasoko ditu haztopen faktoreak aplikatuko diren baremoko atalak eta aplikatzeko modu zehatza, eta zehatz-mehatz adieraziko da zer hartzen den espezifikotzat eta zer kidekotzat.

### III.2. eranskina - Baremo espezifikoa aplikatzea

2.1.- Puntuazio globala. Atal hauek baloratuko dira, dagokion puntuazioarekin:

Lan esperientzia	Ikerketa merezimenduak	Irakaskuntza eta kudeaketa merezimenduak	Merezimendu akademikoak	Euskara	Gehieneko puntuazioa
25	20	19	25	11	100

Atal horiek azpiataletan banatzen dira.

2.2.- Puntuazioa handitzea.

2.2.1.- % 25 handituko da, lan poltsaren jakintza arloan, unibertsitate kidegoen (irakasle katedradunak edo titularrak) edo lan kontratudun irakasle iraunkorren (irakasle osoak edo agregatuak, ikerketako irakasleak edo doktore ikertzaileak edota baliokideak) lehiaketetan parte hartzeko gaitutako edo egiaztatutako hautagai batek lortutako puntuazioa. Akreditazioa baliozkotzat joko da ere, baldin eta, akreditazio dataren arabera, jakintza adarretako batera mugatzen ez bada. Puntuazio igoera ezin izango da inola ere metatu gaikuntza edo akreditazio bat baino gehiago izateagatik.

2.2.2.- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen hautagai baten puntuazioa % 10 handituko da.

2.2.3.- Igoera horiek merezimendu guztiei aplikatuko zaizkie, eta ezin izango da inola ere gaudituz ezarritako gehieneko puntuazioa; hau da, 100 puntu. Aipatutako puntuazioaren igoera aplikatuko da puntuazio osoaren gainean, baremoaren atal bakoitzari dagokion puntuazioari erreparatu gabe. Kasu horretan, behin igoera aplikatuta, hautagaiak gauditzen badu denak batera hartuta balorazio irizpideetarako ezarritako puntuazioa (100 puntu), gehieneko puntuazio hori emango zaio.

2.3.- Balorazio irizpide orokorrak.

a) Batzordeak baloratuko ditu baremo orokor honetako atal guztiak.

b) Merezimendu bat atal batean baino gehiagotan balora daitekeenean, hautagaiak puntuazio handiena lortuko duen atalean bakarrik hartuko da kontuan.

c) Azpiatal bakoitzeko gehienez bost (5) merezimendu alegatu ahal izango dira, lan esperientziaren atalean izan ezik (atal honetan ez da mugarik egongo, akreditazio agentziek egiten dutenaren antzera).

d) Lehen aldian, hautagaiaren merezimendu guztiak puntuatuko dira, 5 merezimendu gehienez azpiatal bakoitzeko. Hurrengo lan poltsak irekitzean, merezimendu gehigarriak bakarrik puntuatuko dira.

e) Hautagai batek atal zehatz batean gainditzen badu atal horretarako ezarritako gehieneko puntuazioa, gehieneko puntuazio hori emango zaio, eta ez dira proportzionalki haztatuko gainerako puntuazioak atal horretan.

### III.3 eranskina – Baremoaren atalak

#### 3.1.- Lan esperientzia.

##### 3.1.1.- Azpiatal hauek baloratuko dira lan esperientzian:

<b>LAN ESPERIENTZIA</b>	<b>Puntuazioa (Saileko Kontseiluak zehaztu beharrekoa)</b>
Unibertsitate irakasle kontratuduna	2,5-4 puntu/urte
Doktorego ondoko ikertzaile kontratuduna	2-3 puntu/urte
Unibertsitate irakaskuntzatik eta ikerkuntzatik kanpoko esperientzia, 1 kategorian edo A taldean izanez gero	2-3 puntu/urte
Unibertsitate irakaskuntzatik eta ikerkuntzatik kanpoko esperientzia, 2 kategorian edo B taldean izanez gero	1,5-2 puntu/urte
Unibertsitate irakaskuntzatik eta ikerkuntzatik kanpoko esperientzia, 3 kategorian edo C taldean izanez gero	0,5-1 puntu/urte
Doktorego aurreko ikertzaile kontratuduna	1,5-2 puntu/urte

3.1.2.- Arduraldi partzialean eginiko zerbitzuak haztatzean, unibertsitate irakaskuntzarako, unitatearen erreferentzia gisa erabiliko dira urteko 24 kredituak edo asteko 8 eskola orduak. Antzera haztatuko dira beste motatako kontratuak.

3.1.3.- Ez dira akreditatu beharko UPV/EHU n emandako irakaskuntza zerbitzuak, eta administrazioak berak erantsiko ditu, ofizioz. Dena dela, hautagaiek aurkeztu ahal izango dute emandako irakasgaien ziurtagiria.

3.1.4.- Irakaskuntza publikoan emandako zerbitzuak akreditatuko dira zerbitzu orriaren eta emandako irakasgaien ziurtagiriaren bidez.

3.1.5.- Irakaskuntza pribatuan emandako zerbitzuak akreditatzeko, aurkeztuko dira lan kontratua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiria (ikastetxearen – enpresaren– izena eta alta aldia adierazita). Gainera, emandako irakasgaien ziurtagiria erantsiko da.

3.1.6.- Ikertzaile gisa emandako zerbitzuak baloratuko dira doktorego ondoko ikerketaren atalean, baldin eta kontrataziorako doktore tituluaren eskakizuna akreditatzen bada. Bestela, baloratuko dira doktorego aurreko ikerketaren atalean, kontuan izan gabe hautagaiak titulu hori duen ala ez.

3.1.7.- Dagokion ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren deialdi ofizialetako doktorego aurreko eta ondoko beka zenbatuko dira zientzia, teknologia eta berrikuntza sistemara sartzeko doktorego aurreko edo ondoko ikertzaileen kontratuen modu berean.

3.1.8.- Oro har, lan esperientzia honela akreditatuko da:

a) Besteren konturako lan esperientzia denean, lan kontratuaren kopiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriaren bidez. Enpresaren ziurtagiri bat ere aurkeztuko da, betetako lanpostuak eta zereginak azalduta.

b) Norbere konturako lan esperientzia denean, eginiko lanen zinpeko aitortpenaren eta dagokion Ogasunaren ziurtagiriaren bidez (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako alta aldiak jasota). Gainera, benetan eginiko lanak egiaztatzeke agiriak ere aurkeztuko dira (BEZ aitortpenak, adibidez).

c) Bekaldiak akreditatzeko, beka deialdia egin duen organoaren ziurtagiria aurkeztuko da, espresuki adierazita beka noiztik noiz arte izan den eta denbora horretan etenaldirik egon den.

3.1.9.- Denboran bat datozen lanaldiak/bekaldiak baloratuko dira 4 puntu/urte mugarekin.

### 3.2.- Ikerketako merezimenduak:

Ikerketako merezimenduetan azpiatal hauek baloratuko dira:

IKERKETAKO MEREZIMENDUAK		Puntuazioa (Saileko Kontseiluak zehaztu beharrekoa)
Ikerketa proiektuak	Kanpo erreferentziarekin	

	Ikertzaile nagusia	1-1,25 puntu/urte
	Kolaboratzailea	0,5-0,75 puntu/urte
	Kanpo erreferentziarik gabe	
	Ikertzaile nagusia	0,25-0,37 puntu/urte
	Kolaboratzailea	0,15-0,25 puntu/urte
Arte Ederren kasuan, Batzordeak erabaki ahal izango du lehiakidearen obra plastikoaren ikerketa izaeraren inguruan, eta 5 punturekin ebaluatuko du gehienez, hari buruzko dossier batean oinarrituta. Arte Ederren kasuan, atalak azpiatal hauek ditu (aipatu).		
Era berean, ikus-entzunezko arloetan, Batzordeek 5 punturekin baloratuko dute gehienez ekoizpenen multzoa (bookak eta antzekoak).		
Argitalpenak, garrantziaren, inpaktuaren eta poltsarekiko egokitzapenaren arabera	Liburua	3-5 puntu
	Liburuko kapitulua	1,5-2,5 puntu
	Artikulua	1-3 puntu
	Arte Eder katalogoa (gehienez 5 puntu)	1-5 puntu
Patenteak		0-2 puntu
Kongresuak	Hitzaldia	0,1-1 puntu
	Komunikazioa	0,1-0,5 puntu
Tesi zuzendaritza/ko-zuzendaritza		2-5 puntu
IAD/MAL zuzendaritza		0,10-0,5 puntu
Egonaldiak ikerguneetan (bi hilabetetik gorakoak)		0,5-2 puntu/urte
Beste ikerketa merezimendu batzuk		0,1-1 puntu

### 3.3.- Irakaskuntza eta gestio akademikoko merezimenduak:

#### 3.3.1.- Irakaskuntza eta gestio akademikoko merezimenduetan baloratuko dira azpiatal hauek:

<b>IRAKASKUNTZA ETA GESTIO AKADEMIKOKO MEREZIMENDUAK</b>		<b>Puntuazioa</b> <b>(Saileko Kontseiluak zehaztu beharrekoa)</b>
Irakats materiala	Liburuak	0,25-2 puntu*
	Kapitulua	0,1-1 puntu*
	Argitaletxe ospetsuetan edo irakaskuntza/ikaskuntzako baliabide birtualen zentroetan argitaratutako materiala (ebaluazioarekin)	0,10-0,5 puntu*
Hezkuntza berrikuntzarako proiektuak	Arduraduna	0,51 puntu*
	Kolaboratzailea	0,3-0,5 puntu*
Zientzia dibulgazioko argitalpenak		0,10-0,5 puntu*
Irakaskuntzarekin zerikusia duten aldizkariak		0,5-2 puntu*
Irakaskuntza arloko kongresuak	Hitzaldia	0,10-0,5 puntu*
	Komunikazioa	0,10-0,25 puntu*
Ebaluazio positiboa Docentiaz programan (ebaluazio bakarra)	Kalifikazioa Bikain bada	4 puntu
	Puntuazioa $\geq 9$	3 puntu
	$7 \leq \text{puntuazioa} < 9$	2 puntu
	$5 \leq \text{puntuazioa} < 7$	1 puntu
	=1-4	0,5 puntu
Irakaskuntzari buruzko inkesta positiboak		0,25-1 puntu/urte/ikasturte
Unibertsitateko master ofizialetako irakaskuntza		1 puntu emandako 3 kreditu bakoitzeko
Proiektuen/Karrera-gradu amaierako lanen zuzendaritza		0,10-0,25 puntu lan bakoitzeko*
Beste hizkuntza batean emandako unibertsitate irakaskuntza (ofiziala edo norberaren jakintza espezialitateko espezifikoa ez dena)		0,25-1 puntu/irakasgai/urte

Berrikuntza eta irakaskuntza kalitateko ikastaroak ematea	0,75 puntu emandako 3 kreditu bakoitzeko*
Prestakuntza egiaztatua berrikuntzan eta irakaskuntza kalitatean	≤ 0,5 puntu emandako 3 kreditu bakoitzeko*
Unibertsitate eta ordezkaritza organoetako kide izatea	0,25-1 puntu/urte
Batzorde Akademikoetako kide izatea	0,5-1 puntu/urte
Irakaskuntza eta gestio akademikoko beste merezimendu batzuk	0,5-1 puntu/urte

3.3.2.- UPV/EHUren master ofizialetako irakaskuntza akreditatu beharko da dagokion irakaskuntza ziurtagiriaren bidez (GAUREn).

3.3.3.- Izartxoan duten ataletan, euskaraz eginiko merezimenduak 1,6ez biderkatuko dira.

### 3.4.- Merezimendu akademikoak:

3.4.1.- Merezimendu akademikoetan baloratuko dira:

<b>MEREZIMENDU AKADEMIKOAK</b>		<b>Puntuazioa (Saileko Kontseiluak zehaztu beharrekoa)</b>
Doktorego titulua	Cum laude	15 puntu
	Bikain	12 puntu
	Beste kalifikazio batzuk	10 puntu
Nazioarteko tesia		3 puntu
Doktorego tesia euskaraz (soilik erabili ez bada euskarari dagokion atalean C2 maila egiaztatzeko)		2,2 puntu
Batez besteko nota Gradua/Lizentziatura/Arkitektura/Ingeniaritza		x1
Sari berezia	Doktoregoa	0,5-2 puntu

	Lizentziatura/Arkitektura/Ingeniaritza/Masterra	0,5-2 puntu
Doktorego programa (32 kreditu) 1. oharra		2 puntu
IAD (Ikasketa Aurreratuen Diploma) 1. oharra		1 puntu
Master ofiziala. 2. oharra		2-3 puntu
30 kreditutik gorako graduondoko beste master edo ikasketa ofizial batzuk		2 puntu
Beste unibertsitate titulu batzuk		1-3 puntu
Hizkuntza ez-ofizialak (ingelesa izan ezik —kasu guztietan baloratuko da—, hizkuntzak baloratuko dira soil-soilik interesekotzat jotzen direnean irakaslanerako —Saileko Kontseiluak zehaztuko du hori—)		C2 4-5 C1 3-4 B2 1-2 B1 0,5-1
Beste merezimendu batzuk		0,5-2 puntu

1. oharra: soilik doktorego titulurik ez dutenen kasuan.

2. oharra: doktorego titulua izanez gero, soilik baloratuko dira doktoregora sartzeko eskatu ez diren masterrak.

3.4.2.- Batez besteko nota: espedientearen batez besteko nota agertzen den ziurtagiri akademikoetan, nota hori hartuko da kontuan, kasu guztietan.

Espedientearen batez besteko nota agertzen ez bada, irakasgaien kalifikazioen batez besteko puntuazioa lortuko da, kalifikazio horiek zenbakiz adierazita daudenean.

Nota literala bada, baliokidetasun hauek erabiliko dira batez bestekoa lortzeko:

- Ohorezko matrikula: 10.
- Bikain: 9.
- Oso ongi: 7,5.
- Nahikoa, gaitua, baliozkotua, gai: 5,5.

Aukera askeko irakasgaiak ez dira inola ere erabiliko batez besteko nota lortzeko.

Ikaslearen ziurtagiri akademikoa aurkezten ez bada, ulertuko da Nahikoa izan dela hautagaiaren batez besteko nota. Kontrakoa adierazten ez bada, puntuazioak unitate bakoitzeko dira.

### 3.5.- Euskararen ezagutza

3.5.1.- Euskararen ezagutzari dagokionez, azpiatal hauek baloratuko dira:

<b>EUSKARAREN EZAGUTZA</b>	<b>Puntuazioa</b>
Euskararen ezagutza akademikoa (C1 mailara arte)	Gehienez 8,80 puntu
Euskararen ezagutzarekin loturiko merezimenduak (C1 mailatik aurrera)	Gehienez 2,2 puntu

Beraz, baloratuko dira: alde batetik, euskararen ezagutza akademikoa; bestetik, euskararen ezagutzarekin lotutako merezimenduak edo ikastaro espezifikoak.

3.5.2.- Euskararen ezagutza akademikoa, irakasteko eskatzen den mailara arte (soilik puntuatuko da gehieneko maila, 8,80 puntu gehienez)

Maila	Puntuak
C1	8,80 puntu
B2	5,30 puntu
B1	3,50 puntu
A2	1,50 puntu
A1	0,75 puntu

Oharrak:

- Ezagutza maila frogatuko da deialdiaren egunean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- C1 mailaren baliokidetzat hartuko da UPV/EHUK antolaturiko EIGA (Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria) azterketa gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

3.5.3.- Euskararen ezagutzarekin loturiko merezimenduak edo ikastaro espezifikoak (2,20 puntu gehienez) (C1 mailatik aurrera).

Merezimendua	Puntuazioa
C2 akreditazioa	2,2 puntu
ADITU	1,65 puntu

AITZINATU	1,80 puntu
Hobekuntza ikastaroak	0,25 puntu/ikastaro
TSE-1	0,20 puntu
TSE-2	1,00 puntu
TSE-3	1,00 puntu
ZUZEN+	1,20 puntu

Oharrak:

- C2 ezagutza maila frogatuko da deialdiaren egunean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Prestakuntza espezifikoiari dagokionez, soilik hartuko dira kontuan UPV/EHUren Euskara Zerbitzuak antolaturiko ikastaroak eta prestakuntza programak.

#### **III.4 eranskina – Puntuazio berdinketak hausteko irizpideak**

Berdinketa kasuan, honako irizpide hauek erabiliko dira, hurrenez hurren. Beraz, lehentasuna izango du:

- a) Puntuaziorik handiena duen pertsonak, kasu honetan aplikatu gabe puntuazio globalerako ezarritako 100 puntuen muga.
- b) Aurreko irizpidea aplikatuta berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna izango du poltsari dagokion jakintza arloan edo espezialitatean ordezkaritza txikiagoa duen sexuko pertsonak.
- c) Irakaskuntza eta gestioko merezimenduen atalean puntuazio handiena duen pertsonak, atalaren gehieneko puntuazioaren muga aplikatu aurretik.
- c) Ikerketako merezimenduen atalean puntuazio handiena duen pertsonak, atalaren gehieneko puntuazioaren muga aplikatu aurretik.